

ZER EGIN UDAN UHARTEAN? Aitona Julianek gomendatzen dizu:

Denbora gutxi baduzu (1h-2h):

- Lehenik eta behin, eta eguraldi onarekin derrigorrezkoa da bainu azkar bat hartzea freskatzeko. Ekarri uretako betaurrekoak itsas fauna ikusi ahal izateko.
- Gero, igo goiko aldera, eta segi bideetatik. Gozatu naturaz eta ikuspegiez.
- Denbora gehiago baduzu, bisitatu itsasargia. Bertan, Cristina Iglesias artista donostiarraren Hondalea eskultura aurkituko duzu. Honalea.eus webgunean sartu behar duzu (sartu esteka) zure bisita erreserbatzeko.
- Agur esateko, udan, hurbildu tabernako terrazara eta hartu zerbeit.

Egun osoa baduzu:

- Uhartera iritsi orduko, ezinbestekoa da bainu bat hartzea! Hainbat toki dituzu aukeratzeko, hondartza, tabernako arrapala, eta uretako betaurrekoak badituzu, ekarri arrainak ikusteko.
- Ospa irlako bidezidorretatik eta gozatu ikuspegiez, faunaz eta floraz. Itsasargira iristen zarenean, haren atzean begiratoki bat aurkituko duzu, eta ezin diozuna bisitatzeari utzi. Hemendik hegaztiak hegan ikusi ahal izango dituzu, baina gogoratu oso garrantzitsua dela ez molestatzeko eta beti distantzia egokia mantentzea hegaztiengandik eta haien habietatik.
- Erreserbatu zure sarrera itsasargia bisitatzeko. Hondalea.eus webgunean duzu horretarako informazio guztia.
- Umeekin zatoz? Itsasbeheran, gozatu uhartean dagoen itsas faunaz. Kiskillak, karramarroak, karrakelak, gogoratu! Beti errespetatu eta zaindu. Marea altuarekin, txikiek zein helduenek bainu ederrak har dezakete piszinatxoan edo tabernako arrapalan.
- Eta udan, piknik-orduan, tabernan seguru aurkituko duzula gustuko zerbeit. Zuk aukeratzen duzu, tabernako terrazan jatea, edo gora igo eta irla osoan dauden mahai ugarietako bat hartzea. Uhartean piknik bat egitea beti ideia ona da! Gainera, tripa beteta, eguzkipean siestatxo bat botatzeak ez du parekorik.

Aprobetxatu eguna ahalik eta gehien!

Berdin dio zer plan egiten duzun, bakarrik edo konpainia onarekin, uharteko denbora oso azkar pasatzen da!

